

# Hutsegiteak konpondu nahiak aberastu zuen mekanografo baldarra

DALLAS (AEB), 1950. Bette Nesmith Graham (1924-1980) Texas Bank and Trust enpresan hasi zen idazkari, berarentzat eta semearentzat bizibidea lortzeko asmoz, 1946an senarrarengandik legez banandu ondoren haren laguntzarik gabe egin behar baitzuten aurrera.

Nesmith berehala igo zuten mailaz eta idazkari exekutibo izendatu; hala, garai hartan banketxeetan emakumezkoek lor zezaketen postu gorena eskuratu zuen. Langile fina zen, baina mekanografian trebe izatea ez zen haren bertuterik handiena eta, ordenagailuak hedatu aurretik, oker bakar batek orria zaborrontzira bota eta hutsetik hastea esan nahi zuen.


Diru sarrerak handitzeko asmoz eta margetzeko zeukan trebezia baliatuz, banketxeko erakusleihoak apaintzen hasi zen eguberrietan. Inspirazioa orduan etorri zitzaion. Grahamen beraren hitzetan, “artistek ez dute egindakoa baztertzen huts bakar batengatik, txarto egindakoaren gainean pintatzen dute beti, eta artistek erabiltzen dutena erabiltzea erabaki nuen”. Botila txiki bat tenpera zuriz bete zuen eta, akuarelak margetzeko erabiltzen zuen pintzel finarekin batera, bulegora eraman zuen, mekanografia akatsak zuzentzeko.

Hasieran, ezkutuan erabiltzen zuen asmakizun gero eta hobe; semearen kimika irakaslearen laguntzaz pinturaren formula hobetuz joan zen. Banketxeko nagusiek, likido zuzentzailearen berri izan zutenean, errieta egin zioten. Lankideek, ordea, haientzat ere potetxoak egiteko eskatzen hasi ziren. Hala, 1956an produktua merkaturatzea erabaki zuen. *Mistake Out* izena ipini zion lehenik, eta *Liquid Paper* aurrerago.

Etxean laborategi modukoa prestatu zuen ekoizpena bermatzeko. Baina etengabe hazten ari zen eskaerak



Ezkerrean, Bette Nesmith Graham eta haren seme Michael Nesmith musikagilea, The Monkees taldeko kide izango zena. Alboan Betteren asmakizun arrakastatsua, mekanografiatzean egindako hutsegiteak zuzentzeko likidoa.



SUNSHINE FACTORY / PATENTLY FEMALE

bultzatuta, etxe atzeko lorategian etxola eraiki behar izan zuen. Hamabi urtez hura izan zen enpresaren egoitza nagusia. 1979an enpresak 200 langile zituen eta urteko 25 milioi botilatxo ekoizten zituen. Urte horretan bertan Gillette erraldoiak 47,5 milioi dolarren truke erosi zion enpresa Grahami.

Banketxetik ez zuten berehala kaleratu. Likido zuzentzailea erabiltzea gustuko ez zuten arren, beste aukera bat eman zioten. 1958an, ordea, hutsegite barkaezina egin zuen eta, orduan bai, egotzi egin zuten. Gutun bat mekanografiatzen ari zela, amaieran, banketxearen izena ipini ordez “The Liquid Paper Company” idatzi zuen. Bette Nesmith Graham ez baitzen ona mekanografian. ■

## Arrastoak

### Lucy ez da gure arbasorik zaharrena



1974AN haren hezurak Etiopian aurkitu zituztenetik, Lucy (argazkian) jo izan da gure arbasorik zaharrentzat. *Australopithecus afarensis* espezieko arrastoek 3,2 milioi urte dituzte. Hogei urte inguruko eta metro eskaseko emakumearen 52 hezur aurkitu zituzten, eskeletoaren %40, arrasto hain zaharretan erabat ezohikoa dena.

Baina berriki *Science* aldizkarian

Chalachew Seyoum etiopiarrek argitaratu duen ikerlanaren arabera, Etiopian bertan, Lucyrengandik 25 kilometrorra aurkitutako masailezur zati fosildu bat *homo* generokoa omen da, eta Lucy baino zaharragoa, duela 2,8 milioi urtekoa, hain zuzen. Seyoumen teoria egiaztatuz gero, gure espeziearen zuhaitz genealogikoa aldatuko da beste behin. ■